



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko ekainaren 13a

66 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, helduen hezkuntza arautzen duena. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsia (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, familia bitartekaritzako Zerbitzua adjudikatzeko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, oinarrizko osasun laguntzako zentroetako laguntza podologikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Galdera, Foruzainek Sparta gimnasioa erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—Galdera, abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Aginduan sartutako diru laguntzak jasotzen dituzten minusbaliatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, Deialdiak eta Parlamentuko Informazioa:**

—Autogobernari buruzko Batzorde Berezia eratzea eta osatzea (16. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## Foru Lege proposamena, helduen hezkuntza arautzen duena

### HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak helduen hezkuntza arautzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2001eko azaroaren 26ko 121. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahalko dira:

– 4, 10 eta “in voce” 3 zenbakietako zuzenketa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 8, 9, 10, 12, 23 eta 24. artikuluei Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkezturiko boto partikularrak.

– 11, 21, 36, 43 eta “in voce” 1 zuzenketa, Batasuna Parlamentuko Taldeak auzetua.

– 1, 2, 3 eta 9 zuzenketa, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztuak.

Zuzenketa horiek 2002ko maiatzaren 16ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

“In voce” zuzenketa hauek dira:

– “in voce” 1:

«Artikulu bat gehitzeko zuzenketa. II. tituluaren artikulu bat gehitzea proposatzen dugu. Hona:

“Gure erkidegoko hizkuntzako batean, gaztelaniaz edo euskaraz, edo bietan, eskainiko dira programak.”

Zioak: Tratu egokia ematea Nafarroako berezko hizkuntzei.»

– “in voce” 3:

«III. tituluari beste artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

Eskualdeko buru diren herriek Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikastetxe espezifikoak izanen dute; ikastetxe hori eskualdeko hezkuntza baliabideen gunea izanen da eta, horrela, bertan, ikastaroak sustatu eta emanen dira: arautuak, ez-arautuak, bertaratzea eskatzen duten ikastaroak eta urrutikoak. Ikastetxeak eskualde bakoitzeko titulartasun publikoko eraikinetan jarri ahalko dira.

Aipatu ikastetxeek Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntzako eskualdeko irakasleak izanen dituzte atxikita. Irakasleok eskualde bakoitzeko herrietako ikastetxe publikoetan sortutako geletaz ere ardura daitezke eta eskolak eskola-ordutegi arruntetik kanpo eman diezazkiekete.

Teknologia berrien erabilpena eta hizkuntzen irakaskuntza bultzatuko dira. Horrenbestez, ikastetxe horiek Internetera konektatuko dira irakaskuntzen lagungarri, teknologia berriak erabiltzen berariaz ikasteko eta “Mentor” proiektuko gela gisa; hori bereziki landa eremuetan eginen da.

Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikastetxe espezifikoek departamentuen arteko batzordeak eratuko dituzte, eskualdekoak edo tokikoak, koordinatzearen Helduen Hezkuntza Iraunkorraren arloan eskualdean egiten diren jarduketara guztiak.

Zioak: Foru Erkidegoak arlo honetan duen errealitatea dela eta, Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntzan landa eremuetan ari diren irakasle-taldeek ekimenak jaso nahi dira. Nahi dena da giza gauza eta ekonomia baliabideen sakabanaketa gaitzitu eta, horrela, horien aprobetxamendu eta koordinazio hobea lortu.»

Iruñean, 2002ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Irizpena**

### **Foru Lege proposamena, helduen hezkuntza arautzen duena**

#### ZIOEN AZALPENA

Unescok 2000ko apirilean Dakarren antolatutako Hezkuntzari buruzko Mundu Foroak onetsi zuen testuak hauxe adierazten du: "Hezkuntza oinarrizko giza eskubidea da, eta, horrenbestez, herri bakoitzean eta nazioartean garapen jasangarria, bakea eta oreka erdiesteko funtsezko elementu bat da; horrela, bada, ezinbesteko bitartekoa da mundializazio azkarraren eraginpeko XXI. mendeko sistema sozial eta ekonomikoetan parte hartzeko. Guztiontzako hezkuntza lortzea gehiago atzeratu beharko ez litzatekeen helburua da jadanik".

Bizitza guztian zeharreko hezkuntza XXI. mendeko giltzarrietako bat da. Biztanleria aktiboaren ondorioa da eta, aldi berean, gizartean parte-hartze erabatekoa izateko baldintza da. Haur, gazte eta helduen hezkuntzaren helburuak, hura bizitza guztia irauten duen prozesu gisa hartuta, hauexek dira: pertsona eta erkidegoen autonomia eta erantzukizunarekiko ardura garatzea; ekonomiak, kulturak eta, oro har, gizarteak jasandako eraldaketei aurre egiteko ahalmena indartzea; eta herritarrak euren erkidegoan elkarrekiko tolerantzian bizi daitezen eta bertan ohartuki eta sormenez parte har dezaten sustatzea. Azken batean, jendeari eta erkidegoei euren etorkizunaren eta gizartearen kontrola ematea, etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko.

Jakintzaren gizarteetan helduen hezkuntza eta hezkuntza iraunkorra nahitaezko bihurtu dira, hala erkidegoaren baitan nola lantokian. Gizarteko eta laneko eskakizun berriek pertsona guztiak behar izaten dituzte euren bizitza guztian zehar ezagutzak eta ahalmenak berriztatzen segitzera.

Ezagutzarako bideak erraztea, adin guztiei eta leku guztietan, garrantzitsua da, zenbait arrazoi direla-eta. Alde batetik, gero eta aldaketa azkarragoetara egokitu beharra dagoen mundu batean enplegu bat eskuratzen laguntzen du. Gainera, bitarteko egokia da aitoren ofiziala daukaten kualifikazioak lortzeko, trebeziak –baita sozialak ere– eskuratzeko eta errealizazio pertsonalerako. Eta, azkenik, beste kultura eta esparru batzuetara irekiagoa izatea ahalbidetzen du. Halaber, herritar aktibo gisa jarduteko prestakuntza ematen du.

Helduen hezkuntzat hartzen da ikasketa-prozesuen multzo bat –formalak nahiz ez-formalak–, gizarte-inguruneak heldutzat jotzen dituen pertsonen modua ematen diena euren ahalmenak

garatzeko, euren ezagutzak aberasteko eta euren trebetasun tekniko edo profesionalak hobetu edo berbideratzeko, horrela euren eta gizartearen beharrezan erantzun ahal izateko. Helduen hezkuntzak bere barnean hartzen ditu hezkuntza formala eta iraunkorra, hezkuntza ez-formala, eta kultura anitzeko hezkuntza-gizarte batean hezkuntza ez-formalerako eta noizbehinkako hezkuntzarako dauden aukeren multzo osoa.

Botere publikoek ezinbesteko izaten segitzen dute herritar guztiek hezkuntzarako daukaten eskubidea bermatzeko, Espainiako 1978ko Konstituzioko 27. artikulua ederki ezartzen duen bezala; bereziki, gizarteko talderik ahulenei dagokienez.

Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak 2. artikuluan xedatzen du hezkuntza iraunkorra hezkuntza sistemaren oinarrizko helburua izan dela eta, horretarako, ikasleak euren kabuz ikas dezaten prestatuko dituela, eta helduei erraztu egiten diela ikasketa ezberdinetarako sarbidea.

Foru Lege horretako hirugarren titulu osoa helduen hezkuntzari buruzkoa da. Bertan xedatzen da hezkuntza-administrazioak zainduko duela heldu guztiek oinarrizko hezkuntza erdietsi ahal izatea, euren baldintza eta beharrezan egokituriko eskaintza bat dela medio. Baina, era berean, zehazten du hezkuntza sistemak bermatuko duela helduek euren ezagutzak eta gaitasunak eskuratu, gaurkotu, osatu edo hedatu ahal izatea, euren garapen pertsonal eta profesionalerako. Horretarako, hezkuntza-administrazioak lankidetzan arituko dira helduen hezkuntzaren arloan eskumenak daukaten beste administrazio publiko batzuekin eta, bereziki, lan-arloko administrazioarekin.

Oinarrizko hezkuntzako berariazko eskaintzaren araubidea ezarri dute Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntza arautzen duen eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan horren irakaskuntzaren egitura eta curriculum zehatza ezartzen dituen uztailaren 6ko 255/1999 Foru Dekretuak eta Nafarroako Foru Komunitatean Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikasketak emanen dituzten ikastetxe publikoen sarea ezartzen duen uztailaren 6ko 256/1999 Foru Dekretuak.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeztuari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 47. artikuluan hauxe ezartzen du: "Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauketa eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, deusetan ukatu gabe gai honi buruzko manu konstituzionaletan ezarritakoa, ez horiek garatzen

dituzten lege organikoak, ezta ikasketa nahiz lanbide tituluak eskuratu, eman eta baliokidetzeko, hala nola berauek bete eta bermatzeko Estatuak duen goi-ikuskaritzaren baldintzak arautzeari dagokionez Estatuak dituen eskumenak ere”.

Hori guztia dela-eta, lege-esparru bat ezarri behar da erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa garatzeko, pertsona helduek, euren garapen pertsonal eta profesionalari begira, euren ezagutzak eta gaitasunak eskuratu, gaurkotu, osatu edo zabaldu ahal izatea bermatzeko. Horregatik, foru lege bat behar da, hezkuntza iraunkorraren printzipioari eta LOGSEko III. tituluan ezarritako printzipioei jarraikiz pertsona helduen hezkuntza indartu eta garatuko duena. Titulu horrek hezkuntza-administrazioaren eta bestelako administrazio eta entitate publiko eta pribatuaren artean egon beharrekoa den koordinazioa errazten du, pertsona helduen hezkuntzak eskatzen duen jarduera-multzoa garatu eta sendotzeko xedez.

## I. TITULUA Xedapen orokorrak

**1. artikulua.** Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean pertsona helduen hezkuntza arautzea eta hura egituratu, garatu, koordinatu eta ebaluatzeko prozedurak eta bitartekoak ezartzea.

Foru lege honen ondorioetarako, pertsona helduen hezkuntzat hartuko da jarduera-multzoa bat, derrigorrezko eskolatzearen adina gainditu duten Nafarroako Foru Komunitateko herritarrei, inolako bereizketarik egin gabe, prestakuntzako ondasun kulturalak eta hezkuntza-mailak eskaintzea xede duena, laneratu eta lanean gora egin ahal izateko baldintzak hobetzeko eta errealitate kultural, sozial eta ekonomikoa kritikoki epaitzeko eta bertan aktiboki parte hartzeko ahalmena handitzeko.

**2. artikulua.** Pertsona helduen hezkuntzak pertsonaren prestakuntza integrala erdiestea du xede, eta honako jarduera-eremu funtsezko hauek hartzen ditu bere barnean:

a) Oinarrizko prestakuntza. Halakotzat ulerturiko prestakuntzak gaur egungo gizartearen eskakizunen araberrako ezagutzak lortu eta gaurkotzea ahalbidetuko du, eta lanaren munduan nahiz hezkuntza-sistemako mailetan sartzea ahalbidetuko duten titulazioak lortzea erraztuko du.

b) Lanaren mundurako prestakuntza. Halakotzat ulerturiko prestakuntza da lanaren munduan sartu ahal izateko hasierako ikasketa, eta ezagutzak nahiz trebetasunak gaurkotu, birziklatu eta

hobetzea, lanbidean gizarte-garapenak eta produktio-sistemaren etengabeko aldaketak ekarritako eskakizunen arabera jarduteko.

c) Garapen pertsonalerako eta parte-hartze sozial eta kulturalerako prestakuntza. Halakotzat ulerturiko prestakuntza helduen hezkuntzaren atal bat da, eta horren helburuak dira aisialdia prestakuntza-xedeetarako aprobetxatzea, sakonkiago murgiltzea gizalegearen balioetan, bizitza sozialean parte-hartze beteagoa lortzea eta Nafarroako errealitate sozial eta kulturalaren ezagutzan aurrera egitea.

**3. artikulua.** Pertsona guztiek daukaten hezkuntzarako eskubidea sendotzeko, haiek beren prestakuntzaren taxuketan parte har dezaten bultzatzeko eta gizarteko sektorerik behartsuenak lehentasunez kontuan hartzeko, honako helburu hauek ezarri dira:

1) Iritzi publikoa ohartarazi eta sentsibilizatzea bizitza osoan zehar hezi beharrari eta horren zentzuari dagokionez, eta pertsona helduengan kultura- nahiz hezkuntza-ondasunez gozatzeko interesa areagotzea.

2) Nafarroako Foru Komunitateko pertsona heldu guztiek daukaten hezkuntzarako eskubidea modu eraginkorrean hedatzea, eta ahalegina egitea herritar guztiek aukera izan dezaten gaur egungo gizarteak eskatzen duen oinarrizko prestakuntza lortzeko. Lehentasuna emanen zaie kolektiborik behartsuenei zuzenduriko jarduerari.

3) Gure ondasun natural, historiko eta kulturalari buruzko jakintza sustatzea, bai eta gure Komunitateko hizkuntza ofizialei buruzkoa ere.

4) Nafar herritarrak Europar guztiz integratuta egon daitezen erraztea, Europako ondasun kulturetan parte hartzeko.

5) Bizitza sozial, ekonomiko, politiko eta kulturean txertatu eta parte hartzeko aukerak hobetzea, gizartean aktiboki esku hartzeko ahalmena handituz eta gizartearen baitako desberdintasunak gainditzen lagunduz.

6) Jarrera sexista, aurreiritzi eta estereotipo nagusiei buruzko analisiaren, gogoeta kritikorearen eta ekintza partikularren bitartez borrokatzea era guztietako bazterkeriaren aurka, eta, halatan, laguntza ematea pertsonak elkar ezagutu dezaten, elkarrekin harremana izan dezaten eta euren burua onetsi dezaten, autoestimua eta duintasuna sustatuz.

7) Baliabide-sistema publiko bat ezartzea irakaskuntzako maila, gradu eta mota bakoitzera iritsi eta bertan parte hartu ahal izateko aukera ber-

matzeko, pertsona helduen ezaugarri, baldintza eta beharrezan egokituriko curriculum eta berriazko prestakuntza-eskaintzen bitartez.

8) Erakundeen konpromisoa sustatu eta bultzatzea pertsona helduen hezkuntzarekin zerikusia daukaten jarduerak egiteko.

9) Pertsona helduen hezkuntza garatzen duten jarduera publiko eta pribatuak sendotu, koordinatu eta bultzatzea.

10) Pertsona helduak hezteko ekintzei eta hezkuntza horretan parte hartzen duten eragileei zuzenduriko prestakuntza-ekintzei buruzko ikerketa eta analisisia ahalbidetzea. Ildo horretan, dinamizazio kultural, curriculum, metodologia, teknologia eta didaktikaren arloko berrikuntzei buruzko proiektuak prestatuko dira.

## II. TITULUA Jarduerak

**4. artikulua.** Pertsona helduen hezkuntzarako foru lege honen helburuei erantzunen die 2. artikuluan adierazitako esparruetako bakoitza garatuko duten berriazko ekintzen bitartez.

Ekintza horiek irakaskuntza-modu ezberdinei jarraituz egin ahalko dira: bertaratzekoa nahiz urrunekoa, formala nahiz informala, instituzionala nahiz komunitarioa, toki- edo lurralde-esparruko programetako ezaugarrien, beharrezan eta parte-hartzaileen aukeren arabera.

**5. artikulua.** Pertsona helduen hezkuntza honako prestakuntza-programa hauen bitartez egituratuko da:

a) Irakaskuntza-programak, oinarrizko hezkuntza lortu eta gaurkotzea ahalbidetzekoak. Programa horiek laneratzeko eta hezkuntza-maila bakoitzean sartzeko aukera ematen duten titulazioak lortzea erraztuko dute, pertsona helduen ikasketzaren ezaugarrietara egokituriko mota, antolamendu eta metodologiaren bitartez.

b) Lan-prestakuntzako programak, lanbidearen arloan orientatu, enplegua lortu, ezagutzak gaurkotu eta mailaz igotzen laguntzeko.

c) Nafarroako errealitatearen alderdi guztiari buruzko ezagutza sustatzeko programak; bereziki, bertako hizkuntzekin eta kulturarekin zerikusia daukan guztiari buruzkoa.

d) Espainiako Estatuko eta Europako Batasuneko errealitateari buruzko ezagutza sustatzeko programak; bereziki, bertako hizkuntzekin eta kulturarekin zerikusia daukan guztiari buruzkoa.

e) Komunikazio-teknologia berrien erabilera hedatzeko programak; bereziki, landa-eskualde urrunen eskueran hezkuntza eta kulturaren arloetako zenbait eskaintza jartzeko bitarteko gisa.

f) Etorrinen eta gizarte-premiako egoeran dauden pertsonen integrazioa errazteko programak.

g) Ezgaitasun fisiko, psikiko nahiz zentzumenekoak daukaten pertsonen gizarteratzen laguntzeko programak, horien prestakuntza eta trebetasun sozialen garapena eta kultura eta lana eskura izan dezaten sustatuko dutenak.

h) Parte-hartze soziokulturala, kulturarteko hezkuntza eta era guztietako bazterkerien gainditzea sustatzen duten programak.

i) Aisialdia modu sortzailean bizitzeko orientazioa eta prestakuntza ematen duten programak.

**6. artikulua.** Hezkuntza-administrazioari dagokio akademi titulazio ofizialak lortu ahal izateko hezkuntza-eskaintzak antolatu, ikuskatu eta ebaluatzea.

Zenbait jarduera egin eta ezagutza batzuk lortu izana frogatzeko diplomak eta ziurtagiriak sortitzake Nafarroako Gobernuak.

## III. TITULUA Ikastetxeak, prestatzaileak eta parte-hartzaileak

**7. artikulua.** Lege honetako 5. artikulua ezarritako pertsona helduen hezkuntza-programak baimendutako ikastetxe publiko edo pribatuetan irakatsi ahalko dira, eta hori ez da eragozpen izanen programa jakin batzuk erakunde publiko edo pribatuetan burutu ahal izateko, aipatu ikastetxeekin behar bezala koordinatuta.

**8. artikulua.** (KENDUTA).

**9. artikulua.** Departamentuarterko Batzordeak proposatuta, foru lege honetako 21. artikulua ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak pertsona helduentzako ikastetxe publikoen sarearen plangintza onetsiko du eta ikastetxe horien antolaketa, funtzionamendua, koordinazioa eta ebaluazioa arautuko ditu.

Halaber, pertsona helduentzako ikastetxe pribatuak baimentzeko baldintza orokorrak arautuko ditu.

Helduen oinarrizko hezkuntza, I eta II. mailetan, eskuratu eta gaurkotzea bideratzen duten hezkuntza programak helduen hezkuntzarako ikastetxe berezietan eta jarduketa berezien bitartez irakatsiko dira.

Oinarrizko titulazioak eskuratzea errazten duten programak ikastetxe berezi eta arruntetan irakatsi ahal izanen dira, aldez aurretik Hezkuntza Administrazioak horretarako baimena emanda. Ikastetxe horiek baimena har dezakete batxilergo eta lanbide heziketako ikasketak irakasteko.

Helduen hezkuntzarako ikastetxe berezietan Hezkuntza Administrazioak baimendutako irakaskuntza ez-arautua ere eman ahal izanen dira.

**10. artikulua.** (KENDUTA).

**11. artikulua.** Baimendutako pertsona helduen hezkuntzarako ikastetxe pribatuekin lankidetzahitzarmen iraunkorrek sinatu ahalko dira, jarduketaprogramak egiteko, baldin eta foru lege honetako 26. artikuluan ezarritako deialdi publikoetako baldintzak betetzen badira.

**Artikulu berria.** Akademi titulu bat lortzea ez dakarten prestakuntza programak pertsona adituek eman ahalko dituzte, baldin eta, erregelamendu bidez ezartzen denari jarraikiz, horretarako behar bezalako gaitasuna dutela kreditatzen badute.

**12. artikulua.** Akademi edo lanbide titulu bat eskuratzeari begira Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrerako 1/1990 Legean sarturiko ikasketak pertsona helduei irakasten dizkieten irakasleek ikasketa horiek irakatsi ahal izateko oro har ezarritako titulazioa izan beharko dute.

**13. artikulua.** Nafarroako Gobernuaren pertsona helduentzako ikastetxeek zehaztuko den plantilla izanen dute.

**14. artikulua.** Pertsona helduentzako ikastetxeetan ikastetxeko plantillakoak ez diren langileak egon ahalko dira, berariazko prestakuntza-programen irakaskuntzan laguntzeko. Figura hori erregelamendu bidez arautuko da.

**15. artikulua.** Pertsona helduen hezkuntzako irakasleek prestakuntza- eta hobekuntza-eskaintza bat izan beharko dute, zeina berariazkoa eta euren interesei eta antolaketari egokitua izanen baita. Hezkuntza-administrazioak irakasle horiei zuzenduriko prestakuntza eta hobekuntza planak ezartzen direla zainduko du. Plan horiek honakoak hartuko dituzte barnean:

1. Pertsona helduen beharrezan erantzun ahal izateko prestakuntza didaktiko egokia.
2. Beste autonomia erkidego eta Europako herrialdeekin esperientziak trukatzea.
3. Prestakuntza-eskaintza honen arloko ikerketen emaitzak eta dokumentazioa eskuratu ahal izatea.

**16. artikulua.** Pertsona helduen hezkuntzaren eta unibertsitatearen arteko elkarreragina sustatu da, honako hauetarako lankidetzahitzarmenak sinatuz:

1. Ikerketa eta sakontze teorikoari bultzada emateko.

2. Estatistikako datuetan oinarrituriko azterlan soziologikoak prestatzeko. Azterlan horiek azalduko dituzte bai gizarte-aldaketak bai etorkizun hurbilean pertsona helduen hezkuntzari aurreikusten zaion bilakaera.

3. Irakasleen hasierako prestakuntzarako eta hobekuntzarako planetan orientabideak eta laguntza emateko.

**17. artikulua.** Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, bere egitura berekia eta irakasleei laguntzeko zentroen sarea baliatuta, foru lege honetan jasotako prestakuntza-programak irakasten dituzten irakasleen prestakuntza sustatu eta lagunduko du, eta pertsona helduentzako didaktikan dauden berrikuntzei buruzko ezagutzak dinamizatu eta sustatzeko material egokiak taxutuko ditu.

**18. artikulua.** Pertsona helduen hezkuntzarako programetan parte hartu ahalko dute egin nahi duten ikasketa-motan ikastetxe arruntetan aritu ahal izateko ezarritako gehieneko adina gainditu dutenek. Oro har, hemezortzi urteko adina gutxieneko adin gisa hartuko da.

Ikasketok egiten jarraitzeko modua eskainiko zaie hamasei urtetik gorako ikasleei ere, baldin eta duten lanarengatik nahiz beste inguruabar bereziengatik ezin badute ikastetxeetara araubide arruntean joan.

Prestakuntza-programetan parte hartzea erraztuko zaie oinarrizko prestakuntzan gabeziak dauzkaten pertsonen, etorkinei, laneratze-zailtasunak dauzkatenen, gizarte-bazterketako egoera pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden pertsonen eta landa-eskualde sakabanatuetan bizi direnen.

**19. artikulua.** Pertsona helduen hezkuntzarako programetan izena ematen duten pertsonen ikastetxeen antolaketan eta funtzionamenduan horretarako ezartzen diren prozeduren bidez parte hartzeko eskubidea izanen dute.

#### IV. TITULUA

##### Programazioa eta koordinazioa

**20. artikulua.** Foru lege honetan jasotako pertsona helduen hezkuntzarako ekintzak sustatu eta

koordinatzeko, Pertsona Helduen Hezkuntzarako Departamentuarterko Batzordea eratu da.

Batzorde hori osatuko dute pertsona helduen hezkuntzaren arloko funtsezko jarduera-esparruekin zuzeneko zerikusia daukaten departamentuetako zuzendari nagusiek eta erregelamendu bidez izendatuko direnak. Hezkuntza, Lan eta Gizarte Ongizateko departamentuen ordezkariak beharrezkoa izanen da.

**21. artikulua.** Pertsona Helduen Hezkuntzarako Departamentuarterko Batzordeak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitatean Pertsona Helduen Hezkuntzarako Programa Orokorra taxuztea.

b) Entitate publikoek nahiz pribatuek eginiko pertsona helduen hezkuntzarako proiektuak sustatu eta koordinatzea.

c) Programa orokorraren betearazpenean lorturiko emaitzak ebaluatzea.

d) Administrazio publikoek bideratzen dituzten aurrekontu-baliabideak koordinatzea.

e) Gobernuak esleitzen dion beste edozein.

**22. artikulua.** Foru lege honetako 5. artikuluan jasotako prestakuntza-programei dagokienez administrazio-eskumenak daukaten departamentuek programen kudeaketaz eta jarraipenaz arduratuko den administrazio-unitatea zehaztuko dute.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuan zuzendaritza-organo bat eratuko da, eta horri honako eskumen hauek esleituko zaizkio: foru lege honetako 7. artikuluan agertzen diren hezkuntza-sistemari loturiko prestakuntza-programak garatu, kudeatu, koordinatu eta horien jarraipena egitea, eta programa horiek ezarri eta garatzetik eratorritako jarduerak.

**Artikulu berria.** Nafarroako Eskola Kontseiluak eta Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluak pertsona helduen hezkuntzari buruzko programa orokorrari eta horren inguruan egiten diren plan berariazkoei nahi urtez urtekoei buruz informatuko dute. Halaber, ikasketa horiek garatu eta hobetzeko programak eta ekintzak proposatu ahalko dituzte.

Aipatu kontseiluek helduen hezkuntzari buruzko txostena eta azterketa osorik jasoko dute urteko txostenean.

**23. artikulua.** (KENDUTA).

**24. artikulua.** (KENDUTA).

## V. TITULUA Finantzaketa

**25. artikulua.** Pertsona helduen prestakuntzaren finantzaketa honako hauen bidez eginen da:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontuei buruzko Legean ezarritako kontusailak.

b) Pertsona helduen hezkuntzako programen ardura daukaten entitate publikoen aurrekontuetan ezarritako kontusailak.

c) Estatutik, Europako Batasunetik edo nazioarteko organismoetatik pertsona helduen hezkuntzara bideraturiko funtsak.

d) Jatorri pribatutik pertsona helduen hezkuntzara bideraturiko funtsak.

**26. artikulua.** Nafarroako Gobernuak, betiere, foru lege honetako helburuak lotzeko beharrezkoak diren funtsak jarriko ditu urtero Nafarroako Foru Komunitatearen aurrekontu orokorretan.

Pertsona helduen hezkuntzako ikastetxe publikoekiko lankidetzaren itun iraunkorrak finantzatzeko, urtero kasuan kasuko deialdi publikoak eginen dira.

## Xedapen indargabetzailea

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

## Azken xedapenak

**Lehen.** Esku ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta gaian eskumena daukaten kontseilariari foru lege hau garatzeko behar diren erregelamenduetan arauak eman ditzaten.

**Bigarrena.** Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.





---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan**

*INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA*

Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak, 2002ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko ekainaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Industrializazio Plana bidal dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako industrializazio plana igor dezan Biltzarrera eztabaidatu eta onartzeko, plangintza garrantzitsu hori ezagutzeko eta haren edukiari eta helburuei buruzko eztabaida egiteko eta aztertzeke; bidenabar, plan horretan proposaturiko zenbait planteamendu, bereziki Lizarrerriaren ingurukoak, aldatzeko aukera emanen.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, familia bitartekaritzako Zerbitzua adjudikatzeko prozesuari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak familia bitartekaritzako Zerbitzua adjudikatzeko prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du Familia bitartekaritzako Zerbitzua adjudikatzeko prozesuari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

- Zein izan da adjudikazio prozesua? nola egin da? zer alderdi balioetsi dira? zenbatek parte hartu dute prozesuan? parte hartu al du Nafarroako inork? argitaratu al zen deialdia NAOn?

- ADJUDIKAZIO PROZESUA: prozedura negoziatua, prentsan iragarkia jarrita, bost milioi pezeta baino gutxiagoko kontratua delako.

- NOLA EGIN DEN: jarraituriko prozedura Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/98 Foru Legean ezarritakoa da. 2001eko abuztuaren 21ean, iragarkia egunkarietan argitaratu zen (Diario de Navarra eta Diario de Noticias).

- ZEIN ALDERDI BALORATU DIRA:

1. Proposamen teknikoari buruzko proiektuaren balorazioa (180 puntu) % 90.

- √ Familia bitartekaritzako programa (150 puntu).

- Historikoa - 10 puntu

- \* Taldearen funtzionamendu-aldia eta egonkortasuna.

- Giza baliabideak - 70 puntu

- \* Ekipoaren osaketa.

- \* Prestakuntza akademikoa, esperientzia eta Familia Bitartekaritzako taldea osatzen duten profesionalen familia bitartekaritzaren arloan duten prestakuntza profesionala.

- Gauza-baliabideak - 20 puntu

- \* Zerbitzua erabiltzailearen eskura egotea, instalazioak eta ekipamendua.

- Antolamendu eta kudeaketa sistema - 50 puntu

- \* Orduategia

- \* Metodologia eta baliabide teknikoak (teknikak eta metodologia, dokumentazioa aurkeztea, ebaluazio sistema).

- √ Prestakuntza eta informazioa (30 puntu).

- Prestakuntza eta informazio proiektua:

- \* Profesionalak eta prestakuntzaz eta informazioaz baliatuko diren pertsonen kopurua.

- \* Programen edukia.

- \* Ordu kopurua.

- \* Lanaldi kopurua.

- \* Prestakuntza jardueren kopurua.

- \* Prestakuntza emanen duten profesionalen prestakuntza eta esperientzia.

- \* Prestakuntza eta informazio ekintzak emanen diren udalak eta lekuak.

2. Proposamen ekonomikoari buruzko proiektuaren balorazioa (18 puntu) % 10.

– PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ENTEEN KOPURUA: bi entitate aurkeztu ziren.

– NAFARROAKO ENTITATEEN PARTEHARTAZEA: aurkeztu ziren bi entitateetatik, bat Nafarroan sortu berria zen; bestea Estatu mailako entitate bat zen, Nafarroan ordezkaritza duena.

– DEIALDIA NAOAREN ZEIN ALETAN ARGITARATU ZEN: ez zen NAOan argitaratu behar

izan, prentsan iragarritako kontratu negoziatua izan baita, Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:  
Calixto Ayesa Dianda

## **Galdera, oinarrizko osasun laguntzako zentroetako laguntza podologikoari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak oinarrizko osasun laguntzako zentroetako laguntza podologikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak 2002ko urtarrilaren 16an galdera egin du Oinarrizko osasun laguntzako zentroetako laguntza podologikoari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Lehenbizi, jakin behar da laguntza podologikoa ez dela Nafarroako Osasun Sistema Nazionalaren eremuko osasun prestazioei buruzko urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuan jasotako prestazio bat. Hori dela eta, gaur egun ez dago profesional bat bera ere Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zentroetan laguntza podologikoa ematen duenik.

Ez da podologiako profesionalik sartu laguntza podologikoa emateko Nafarroako Foru Komunitateko Oinarrizko Osasun Laguntzako inongo zentroetan; ez dago aurreikusita Podologia arloko lan-

posturik eskaintzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren hurrengo deialdi publikoan.

Osasun Departamentuaren Osasun Laguntzako Zerbitzuak Nafarroan baimendutako podologiako 26 kontsulta ditu erregistraturik. Baimen hori izateko nahitaez bete behar dira zentro, zerbitzu eta establezimenduak sortu, eraberritu edo lekuz aldatu eta horien funtzionamendurako baimenak arautzen dituen 214/97 Foru Dekretua eta ospitaleratze gabeko osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak baimentzeko gutxieneko baldintza teknikoak eta osasun baldintzak ezartzen dituen 37/99 Foru Agindua.

Zentro horietan guztietan profesional ardura-dun bat dago, jarduera profesional horretan jarduteko behar den titulazioa duena. Halaber, lokalek exijitu daitezkeen gutxieneko baldintzak bete behar dituzte.

Osasun Departamentuak osasun zentro bat baimentzeko eskaria jasotzen duenean, ikuskaritza bisitaldi batez egiaztatzen du aipatu baldintzak betetzen direla.

Jubilatuen elkarte, klub eta egoitzek eginiko osasun jarduketan kasuan, baimendutako langileak dira jarduera horretan sorturiko eskariari erantzutera joaten direnak, behar den lekuan behar dela ere. Zentro horien lokalak osasun zentro gisa sailkaturik ez daudenez, kasuan kasuko entitateak behar ziren izan osasun jarduera horretan aritze-ko behar den baimena eskatzen zutenak.

Azaldu dugun bezala, podologiako kontsulta baimenduetan egiaztaturik dago lanbidean aritze-

ko gaitasun-tituluaren baldintza betetzen dela. Ez zaie podologiako inongo kontsultarik baimentzen bestelako titulazioak dauzkatenei.

Osasun Departamentuak oinetako patologiak izan eta podologiako kontsulta pribatuetara joan behar izaten duten pertsoneri arreta egiteko hartu dituen neurriei dagokienez, ez dago podologia laguntzarako inongo jarduketa-aurreikuspen berriazkorik, era horretako jarduketak Gizarte Ongizate Departamentuaren kontua izaten baitira, Nafarroan ez ezik gainerako autonomia erkidegoan ere.

Bestalde, Osasun Departamentuak urtero osasun programetarako dirulaguntzen deialdia egiten du. Zehazki, departamentuko zuzendari nagusiaren apirilaren 30eko 507/2001 ebazpenaren bitartez 2001 urterako 40.658,46 euro (6.765.000 pezeta) ematea onetsi zuen. Hartara laguntzen da ondoren zehazten diren entitateek podologiako programetarako eginiko eskariak:

Podologiarako dirulaguntzak, Osasun Departamentuak 2001. urterako emandakoak

Entitate eta elkarteak	Dirulaguntza, pezetatan
Antzin - Ameskoak Mankomunitatea	325.000
Atalaya (Zarrakaztelu)	145.000
Melidako Udala	108.000
Tafallako Udala	450.000
Cintruénigoko Jubilatua	212.000
Figarolgo Jubilatua	50.000

Erriberako Jubilatua (Tutera)	265.000
Funesko Jubilatua	170.000
Garesko Jubilatua	170.000
Leitzako Jubilatua Elkartea	163.000
Alloko Mankomunitatea	175.000
Irantzuko Mankomunitatea	350.000
Queiles Ibarreko Mankomunitatea	578.000
Obanosko Jubilatua	80.000
Azkoiengo Jubilatua	255.000
San Andres (Atarrabia)	250.000
San Miguel (Corella)	178.000
San Raimundo Abad (Fitero)	143.000
Sor María Muruzabal (San Martín Unx)	73.000
Santa Águeda (Murillo el Fruto)	110.000
Santa Eufemia (Santakara)	110.000
Virgen del Plu (Marcilla)	162.000
Virgen Sancho Abarca (Buñuel)	500.000
Yoar (Castejón)	225.000
Yoar (Iruña)	700.000
Yoar (Tutera)	318.000
Blanca de Navarra (Cadreita)	500.000
<b>Emandakoa, guztira</b>	<b>6.765.000</b>

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2002ko otsailaren 22an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Galdera, Foruzainek Sparta gimnasioa erabiltzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Foruzainek Sparta gimnasioa erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du foruzainek Sparta gimnasio baten instalazioak erabiltzeari buruz. Hona Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Barne zuzendari nagusiaren abenduaren 31ko 1813/1999 Ebazpenaz, Foruzaingoaren 2000rako gimnasioa zerbitzuak eta heziketa fisikoko eta defentsa pertsonaleko programak hartzen zituen kontratu bat esleitu zitzaion Siriacus, SA enpresari, 1.800.000 pezetatan, hau da, 10.818,21 eurotan, BEZa barne.

2. Adierazitako kontratu-harremana 2001. urterako luzatu zen bi aldean adostasunez; luzapen hori Barne zuzendari nagusiaren otsailaren 15eko 245/2001 Ebazpenaz baimendu zen, 1873.800 pezetatan, hau da, 11.261,76 eurotan, BEZa barne. Zenbateko hori Nafarroako KPla aplikatuta eginiko gaurkotzearen ondorioa da, kontratazio-baldintzetan eta Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko 10/1998 Foru Legean jasotako aurreikuspenei jarraituz.

3. Martxoaren 28an, kontratistak idazki bat igorri zuen esanez 2001eko martxoaren 31tik aurrera kontratu-harremana amaitutzat ematen zuela, sortzen zizkion arazoak zirela kausa; hitzez hitz honela zioen: "bezero ugari etorri eta gure monitorea zure langileen prestakuntza aztertzen, prestatzen eta jarraitzen denbora gehiegi eman behar izaten duelako, gure abonatuaren eta, horrenbestez, enpresaren kalterako".

4. Sortutako egoera horren ondorioz, 2001eko maiatzean kontratuari amaiera eman zitzaion, eta kontratistari alegazioak aurkezteko epe bat eman zitzaion. Epe horretan, idazki bat aurkeztu zuen

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko 10/1998 Foru Legeko 142. artikuluan aurreikusitako erantzukizunetako bakarra ere ez eskatzeko; horretarako argudiatu zuen Administrazioak ustez eginiko arau-hauste bat, ez baitzuen amore eman instalazioak erabiltzeko ordutegia murrizteko, edo, hala behar izanez gero, kalte-ordain bat onartzeko.

5. Barne zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 890/2001 ebazpenaz, kontratistaren tesiak onartzea eragozten zuten arrazoiak azalduta, kontratuari amaiera eman eta behin betiko fidantza, 72.000 pezeta, 432,72 euro, bahitzea erabaki zen. Ebazpen horren aurkako errekurtsorik ez zen aurkeztu.

6. 2001eko maiatzean, halaber, hasiera eman zitzaion Foruzaingoaren gimnasio zerbitzuak eta heziketa fisikoko eta defentsa pertsonaleko programak kontratatzeke beste espediente bati, publikitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz, hain zuzen ere 2001eko ekainaren 15etik abenduaren 31ra bitarteko. Lizitazio prezioa 1.191.167 pezeta zen, 7.162,06 euro. Lizitazio horretarako gonbitea egin zitzaion hiriburuko gimnasioetako sei titularri.

7. Gonbidatuetako batek baizik ez zuen parte hartu kontratazioan; haren proposamena, betiere, Foruzaingoaren txostenari jarraituz, ez zen onartu, kontratazio klausuletan ezarritakoaren aurka instalazioak erabiltzeko ordu-murrizketak baitzitu.

Lizitatuak argudiatzen zuen eskaintako ordutegia zabaltzeko eta gimnasioko bazkideenaren pare jartzeko aukerarik ez zuela, prezioari zegozkion arazoez gainera, ordu jakin batzuetan foruzainek instalazioak kolapsatuko zituztelako.

8. Aurreko kontratazioaren ondoriozko ordainketei aurre egin ahal izateko eta beste kontratazio baterako funtsak egon zitezela ahalbidetzeko, 2001. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan gimnasioa kontratatzeke kontusailean zegoen dirua 1.153.000 pezeta igo zen maiatzean.

9. Siriacus, SAri 2001ean kontratuak indarra izan zuen bitartean eginiko ordainketak, kontratuari amaiera eman artekoak, 468.450 pezeta egin zuen.

10. Aipaturiko doikuntza egin ondoren, kontusailean, aipaturiko ordainketak kenduta, 2.584.550 pezeta zeuden; diru hori, azkenean, ez

zen erabili, hau da, ez zen inongo xedetarako erabili.

11. Foruzainek gimnasio bat erabiltzeko dauzkatzen zailtasunak, behin eta berriz esan izan den bezala, honetan dautza: gero eta foruzain gehiago dagoenez, edozein instalazio kolapsatzeko arriskua dago, instalazio hori erabiltzen duten gaineko bazkideei kalte eginez.

12. Zenbait alternatiba ditugu aztergai, foruzainek kirol instalazio batzuk erabiltzeko aukera izan dezaten eta prestakuntza fisikoko eta defentsa pertsonaleko programak gara ditzaten. Betiere, azaldutako esperientzia ikusita, berriz ere kontratazioa joz gero, kostu handiagoak aurreikusitako beharko dira, eta aldi berean Iruñeko gimnasio batzuk eta Tuterako beste gimnasio bat erabili beharko dira –instalazioetan masifikazioa saihestu eta Foruzaingoaren hedapenari erantzuna emateko– eta, ezinbestez, gimnasio horiek erabiltzeko

ordutegietan murrizpen batzuk ezarri beharko dira.

13. 2001.eko ekitaldian kontratazio egiteko behar den kostuari buruz kalkulaturakoak finantzatzeko behar adina funts ez izateak eta 2002.era Nafarroako Aurrekontu Orokorrek luzatzeak gaur arte atzerarazi egin dute kontratazio prozedura berriei ekiteko modua izatea.

14. Nafarroako Gobernuak ez ditu ordainduko foruzainak joan diren edo normalean joaten diren gimnasio, igerileku eta abarretako kuotak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2002ko otsailaren 25ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## Galdera, abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Aginduan sartutako diru laguntzak jasotzen dituzten minusbaliatuei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Aginduan sartutako diru laguntzak jasotzen dituzten minusbaliatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearen gizarte gaitako eledun M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Aginduan sartutako diru laguntzak jasotzen dituzten minusbaliatuei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

1. Nafarroan, 2000 eta 2001. urteetan, % 33tik % 64ra bitarteko minusbaliotasuna duten 18 urte-65 urtera bitarteko kopurua, Nafarroako

Gizarte Ongizatearen Institutuaren datuen arabera.

Nafarroan, % 33tik % 64ra bitarteko minusbaliotasuna duten 18 urte-65 urtera bitarteko kopurua, egun, 10.370 pertsona egiten du.

2. 2000 eta 2001. urteetan, abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Aginduen babesean aldizkako diru laguntzak jaso dituzten kopurua, osotara.

Urtea	Urtean AD jasotzen dituzten pertsonak, guztira
2000	147
2001	170

3. Zein aldaketa egin ditu Nafarroako Gobernuak arauetan, Nafarroako pertsona ezgaituek diru laguntzak justizia sozial handiagorekin lortzeko baldintzak malgutzeko, gizarte bazterkeriaren egoeran dauden gainerako herritarrek dituzten onura ekonomiko berdinak izan ditzaten?

% 33tik % 64ra bitarteko minusbaliotasuna duten eta ezgaitasunagatik dirurik jasotzen ez duten pertsonentzako laguntzak erregulatzen

dituzten arauen aplikazioaz lortzen joan garen informazioak ez du biderik ematen, besterik gabe, ezarritako neurriak aldatzeko.

Aipatzen den gizataldearen inguruan, hainbat inguruabar eta aldagai daude, eta horiei ezin zaie heldu aipatutako araudian aurreikusitako jarduketara hutsetik.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko otsailaren 26an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria.: Calixto Ayesa Dianda

---

**G Saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Autogobernuari buruzko Batzorde Berezia eratzea eta osatzea**

2002ko ekainaren 11n Autogobernuari buruzko Batzorde Berezia eratu zen eta ondorengo batzordekideek osatzen dute.

### LEHENDAKARIA

Alberto Catalán Higuera jauna (SPN)

### BATZORDEKIDEAK

Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN)

Joxe Fernando Barrena Arza jauna (Batasuna)

Carlos Cristóbal García jauna (SPN)

Begoña Errazti Esnal andrea (EA/EAJ-PNV)

Carlos García Adanero jauna (UPN)

Juan José Lizarbe Baztán jauna (SPN)

Milagros Rubio Salvatierra andrea (Askotarikoa)

Félix María Taberna Monzón jauna (IUN-NEB)

Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikulua xedatutakoarekin bat argitaratzen da.

Iruñean, 2002ko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 39,07 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 0,96 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,14 »	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--